

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4795

IRAGARKIA, 2022ko urriaren 27koa, Industria Administrazioaren Gipuzkoako lurralde-ordezkariera, zeinaren bidez argitara ematen den, lehia posible baten ondorioetarako, Azpeitia, Errezil eta Zestoako udal-mugarteetan Piaspeko parke eolikorako alde zurreko administrazio-baimenaren eskaera.

115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan ezarritako ondorioetarako (115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena), Piaspeko parke eolikorako aurkeztutako alde zurreko administrazio-baimenaren eskaera iragartzen da:

- Eskatzailea: Desarrollos Renovables Iberia Pi, S.L.U.
- Tartean dauden udal-mugarteak: Azpeitia, Errezil eta Zestoa (Gipuzkoa).
- Haize-sorgailuen kopurua: 5.
- Instalatu den potentzia gordina: 33 MW.
- Ukitutako azaleraren poligonalaren koordenatu geografikoak:

Parke eolikoaren mugakide den poligonalak honako koordenatu hauek ditu: UTM (ETRS89, HUSO 30)		
Erpin zk.	X koordenatuak	Y koordenatuak
01	560.947	4.782.755
02	561.762	4.783.167
03	563.193	4.783.685
04	564.885	4.783.970
05	565.294	4.782.740
06	560.977	4.781.949

Hori guztia argitara ematen da, eta hogeitun eguneko epea ematen da, iragarki hau 115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren aldizkarietan argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita, parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek aipatutako dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera lehia-eskabidea aurkeztu dezaten Industria Administrazioaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan edo izapidetze elektronikoaren plataformaren bidez.

Donostia, 2022ko urriaren 27a.

Industria Administrazioaren Gipuzkoako lurralde-ordezkaria,
AGUSTIN AROSTEGI ARTETXE.